



BREXITAREN ERAGINA EUSKAL INTERESETAN

2017-07-10ko bertsioa

Txosten hau egin den egunari gagozkiola, Erresuma Batuak EB uztera eta 2019ko martxoaz gero Erresuma Batuaren eta 27 kideko EBren arteko harremanak garatuko diren esparrua zehaztera eramango duten negoziazioak hasi zirenetik hilabete baino gutxiago igaro delarik, ez dago EB uzte horrek Euskadin zein eragin izango duen aurreratzerik.

Hala ere, egokia dirudi Euskadik zenbait eremutan Erresuma Batuarekin daukan harremanaren argazki ahalik eta xeheena eduki ahal izateko datuak biltzea, aurrez ikusita kolokan egon litezkeela diruditenak identifikatze aldera. Agiri hau Britainia Handiarekin dauzkagun loturei buruzko lehen hurbilketa kuantitatiboa da.

1. Erresuma Batuan bizi diren edo hara doazen euskal biztanleengan izango duen eragina

EBko biztanleriak eskubidea du estatu kideen lurraldearen barruan mugitzeko eta bizilekua askatasunez aukeratzeko. Erresuma Batuak bere barne zuzenbidean sartuta dauka erkidegoko herritarrekiko duen eginbehar hau. Ondorioz, erkidegoko herritarrek –eta euskaldunok, jakina– Erresuma Batuan jar dezakete beren bizilekua euren konturako edo inoren konturako lana egiteko, enplegua bilatzeko, ikasteko, erretiroa hartzeko edo, beste barik, horretarako diru baliabide nahikoa badute, inolako egoitza baimenik lortu beharrik izan gabe. Nolanahi ere, egoitza baimena eskatzea badago, herrialde hartan bizitzeko dugun eskubidearen berrespen soil modura.

Erresuma Batuak EBren kide izaten jarraitzen duen bitartean, nahiz eta Batasuna uzteko negoziazioak hasita egon, ez da aldaketarik egongo Erresuma Batuan bizi diren EBko herritarren estatusean.

Erresuma Batuan aldi baterako edo modu egonkorrean bizi diren euskal herritarren kopuru osoaren datu zehatzik ez dago. Gutxi gorabehera esan daiteke, atzerrian egoiliar diren espainiarren hautesle eroldaren (CERA) datuak kontuan hartuta, gaur egun 4.000 inguru direla Erresuma Batuan bizi diren euskal egoiliarrak.

Ohiko egoiliarren ondoan, Euskal Herriko irakasle kopuru handi bat eta, batez ere, ikasle asko joaten da urtero Britainia Handira prestakuntza jasotzera, "Erasmus+" programaren esparruan.

Unibertsitate eremua

Mondragon Unibertsitatea

	2016/2017 harako mugikortasuna		
	Europa	Erresuma Batua	Ehunekoak
Ikasleak	404	79	% 19,55
Global Training	23	4	% 17,39
IIL	27	11	% 40,74
AZP	2	0	% 0,00
Doktoretza	6	1	% 16,67
Guztira	462	95	% 20,56

	2016/2017 honako mugikortasuna		
	Europa	Erresuma Batua	Ehunekoak
Ikasleak	135	2	% 1,48
IIL	5	0	% 0,00
AZP	0	0	% 0,00
Doktoretza	1	0	% 0,00
Guztira	141	2	% 1,42

Iturria: Mondragon Unibertsitatea

Euskal Herriko Unibertsitatea

	2016/2017 mugikortasuna				
	Ikasleak (harako)	Ikasleak (honako)	Ikasleak praktikak (harako)	AZP harako	IIL harako
Programa Erasmus+	64	12	26	0	4

Iturria: EHU.

(*Berria)

	Honako mugikortasuna 2016/2017	
	Europa	Erresuma Batua
IIL	103	5
AZP	31	0

Iturria: UPV/EHU

EHUk gaur egun 34 mugikortasun hitzarmen ditu indarrean Erresuma Batuko unibertsitateekin, horietako bat 2017an izenpetua.

CODIGO	UNIVERSIDAD	FACULTAD	Field	Duración del acuerdo	Fecha tramitación
UK ABERDEE01	UNIVERSITY OF ABERDEEN	FACULTAD DE LETRAS	Languages (hispanic studies/english)	2015-2021	2014.12.05
UK ABERDEE01	UNIVERSITY OF ABERDEEN	FACULTAD DE PSICOLOGIA	Psychology	2016-2021	2016.01.13
UK ABERDEE01	UNIVERSITY OF ABERDEEN	FACULTAD DE CIENCIA Y TECNOLOGIA	Biological and related sciences	2015-2021	2015.03.23
UK ABERYST01	ABERYSTWYTH UNIVERSITY	FACULTAD DE LETRAS	Languages acquisition	2017-2020	2016.06.21
UK ABERYST01	THE UNIVERSITY OF WALES ABERYSTWYTH	ESCUELA DE MASTER Y DOCTORADO	Political science and civics	2017-2020	2016.06.06
UK ABERYST01	THE UNIVERSITY OF WALES ABERYSTWYTH	FACULTAD DE SOCIALES Y DE COMUNICACION	Political science and civics	2017-2020	2016.06.06
UK BIRMING02	UNIVERSITY OF BIRMINGHAM	FACULTAD DE LETRAS	Languages	2016-2020	2016.11.24



UK BIRMING02	UNIVERSITY OF BIRMINGHAM	FACULTAD DE CIENCIA Y TECNOLOGIA	Mathematics and statistics	2017-2021	2016.11.24
UK BRADF02	BRADFORD COLLEGE	FACULTAD DE BELLAS ARTES	Fine arts	2014-2021	
UK BRISTOL02	UNIVERSITY OF THE WEST OF ENGLAND BRISTOL	FACULTAD DE BELLAS ARTES	Fine arts	2014-2021	
UK CAMBRID01	UNIVERSITY OF CAMBRIDGE	ESCUELA DE MASTER Y DOCTORADO	Languages	2015-2018	2015.01.19
UK CANTERB03	CANTERBURY CHRIST CHURCH UNIVERSITY	FACULTAD DE CIENCIA Y TECNOLOGIA	Biology and biochemistry	2017-2018	2017.01.13
UK COLERAJ01	UNIVERSITY OF ULSTER	FACULTAD DE FARMACIA	Environmental sciences	2014-2021	
UK CRANFIE01	CRANFIELD UNIVERSITY	ESC. DE INGENIERIA DE BILBAO - ANTERIOR E.T.S. BI	Engineering	2015-2018	2015.11.18
UK CHELTEN02	UNIVERSITY OF GLOUCESTERSHIRE	FACULTAD DE CIENCIAS DE LA ACTIVIDAD FISICA Y DEL DEPORTE	Sports	2014-2018	2015.05.19
UK DEESIDE01	GLYNDWR UNIVERSITY	FACULTAD DE INFORMATICA	Computing	2014-2021	
UK GLASGOW02	UNIVERSITY OF STRATHCLYDE	CONJUNTO: F. C. TECNOLOGIA & F. QUIMICAS	Chemistry	2014-2021	
UK LANCAST01	LANCASTER UNIVERSITY	FACULTAD DE LETRAS	Languages	2015-2021	2015.06.02
UK LANCAST01	LANCASTER UNIVERSITY	ESCUELA DE MASTER Y DOCTORADO	Languages	2015-2021	2015.06.02
UK LEEDS01	UNIVERSITY OF LEEDS	FACULTAD DE BELLAS ARTES	Fine arts	2017-2021	2016.11.17
UK LONDON017	KING'S COLLEGE LONDON	FACULTAD DE LETRAS	Foreign languages	2014-2021	
UK LONDON110	UNIVERSITY OF GREENWICH	E.U. DE ESTUDIOS EMPRESARIALES-SS	Business, economics	2016-2018	2016.02.15
UK LONDON110	UNIVERSITY OF GREENWICH	FACULTAD DE CC Y ECONOMICAS EMPRESARIALES	Business and economics	2016-2018	2016.05.02
UK MANCHES04	MANCHESTER METROPOLITAN UNIVERSITY	CONJUNTO: F. C. TECNOLOGIA & F. QUIMICAS	Biology	2017-2021	2016.12.26
UK MANCHES04	MANCHESTER METROPOLITAN UNIVERSITY	CONJUNTO: F. C. TECNOLOGIA & F. QUIMICAS	Chemistry	2017-2021	2016.12.26
UK NEWCAST01	NEWCASTLE UNIVERSITY	E.T.S. DE ARQUITECTURA	Planning	2017-2020	2016.10.04
UK NEWCAST02	UNIVERSITY OF NORTHUMBRIA AT NEWCASTLE	CAMARA DE COMERCIO DE BILBAO	Business and administration	2017-2021	2016.10.13
UK NOTTING01	THE UNIVERSITY OF NOTTINGHAM	FACULTAD DE LETRAS	Foreign languages	2014-2021	
UK NOTTING02	THE NOTTINGHAM TRENT UNIVERSITY	FACULTAD DE LETRAS	Foreign languages	2014-2021	
UK NOTTING02	THE NOTTINGHAM TRENT UNIVERSITY	FACULTAD DE LETRAS	Foreign languages, translation and interpretation	2014-2021	
UK PLYMOUT01	PLYMOUTH UNIVERSITY	CAMARA DE COMERCIO DE BILBAO	Business and administration	2016-2021	2015.10.06
UK SHEFFIE01	UNIVERSITY OF SHEFFIELD	FACULTAD DE LETRAS	Languages and philological sciences	2017-2021	2016.12.20
UK SHEFFIE02	SHEFFIELD HALLAM UNIVERSITY	FACULTAD DE BELLAS ARTES	Design	2016-2019	2016.02.24
UK SHEFFIE02	SHEFFIELD HALLAM UNIVERSITY	FACULTAD DE BELLAS ARTES	Design	2016-2019	2016.02.24

EHUn dauden britainiar nazionalitateko irakasle eta ikertzaileen kopurua oso txikia da guztira daudenekin alderatuta. 2016an, 196 atzerritar zenbatu dira eta horietatik 4 bakarrik zetozen Erresuma Batutik.

Azkenik, Euskadiren eta Erresuma Batuaren arteko berariazko lankidetzaren programei dagokienez, esate baterako Oxford, Cambridge eta Glasgowko Basque Visiting Fellow programetan, ustez Brexitak ez du eragin handirik izango alde biko hitzarmenak direlako.

Deustuko Unibertsitatea

Erresuma Batuko ikasleak Deustun	2014-2015	2015-2016	2016-2017
Gradua	25	20	23

Masterra	16	16	12
Doktoretza	0	1	1

Deustuko ikasleak Erresuma Batuan	2014-2015	2015- 2016	2016-2017
Gradua	58	47	44
Masterra	25	13	16

	2014	2015	2016	2017
IIL; PI; AZP	31	28	27	13

Iturria: Deustuko Unibertsitatea.

Deustuko Unibertsitateak 38 hitzarmen ditu izenpetuta Erresuma Batuko hainbat unibertsitaterekin.

Gainera, 4 Master ematen dituzte batera Deustuko Unibertsitateak eta Erresuma Batuko unibertsitate batzuek.

Osasun estaldura

Erresuma Batuak EB uztea errealitate bihurtu artean, osasun laguntzaren prestazioa eta estaldura arautzen dituten Erkidegoko arautegiak aplikatuko dira¹. Arau di horren arabera, EBko hirugarren herrialde batera mugitzen diren EBko herrialde bateko pertsonak eskubidea dute osasun laguntza jomugako herrialdeko egoiliarren baldintza berberetan jasotzeko.

Gaur egun, osasun laguntzaren prestazioa emateko, hirugarren herrialde batera mugitzen den EBko herritarrak Europako Osasun Txartela (EOT) eskatu behar du bere jatorriko herrialdean.

Laguntza ematen duen estatuak zuzenean kudeatzen du estatu bermatzailearekin segurantzaren publiko ko sistemak aseguratutako herritar bati emandako osasun laguntza (Osasun Sistema Publiko Ingelesa edo Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionala).

Brexita errealitate bat denean, Euskadiko herritar bat Erresuma Batura mugitzen denean, edo alderantziz, gerta daitezkeen egoerak hauek dira:

Egonaldi mota	Oraingo egoera	BREXITaren ondoren
Turista Aldi baterako egonaldia, gehienez hiru hilabete (<i>Erasmusak sartzen dira, horien EOT ikasturtearen iraupenera egokituko</i>)	Europako Osasun Txartela	Aseguru pribatua osasun laguntzarako

¹Gizarte segurantzaren sistemak koordinatzeari buruzko 883/2004 (CE) Arautegia, 883/2004 Arautegia aplikatzeko arauak onartzen dituen 987/2009 (CE) Arautegia eta Batasuneko herritarrek eta euren familietako kideek estatu kideen lurraldean askatasunez zirkulatu eta bizitzeko duten eskubideari buruzko 2004/38/CE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Europar Kontseiluarena.



da)		
Egoiliarra edo lekualdatua hiru Egoiliarra edo lekualdatua hiru hilabete baino gehiagorako	<ul style="list-style-type: none"> • <u>Lan jardunean arituz gero</u>, osasun sistema publiko ingelesari edo espainiarrari atxikiko zaio. • <u>Lan jardunean ari ez bada</u>, nahikoa baliabide ekonomiko eduki beharko du bere mantenua eta egonaldia ordaintzeko, eta osasun laguntzako aseguru pribatu bat eduki beharko du. 	

Iturria: Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritza.

Horiek dira planteatutako kasuak, osasun esparru berezirik ezartzen ez bada, hau da, EBk eta Erresuma Batuak, edo zuzenean Espainiak eta Erresuma Batuak, Gizarte Segurantzari buruzko akordioa lortzen ez badute.

(*Berria)

Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko Zuzendaritzaren Biztanleria Oinarrriko Aseguramendu Sistema Integratuko BOASI datu basean 914 pertsona daude Erresuma Batuko nazionalitatea dutenak. Pertsona horiek osasun laguntza jasotzen dute Euskadin eta osasun txartela dute.

914 pertsona horietatik 16 bizisaridunak dira, Erresuma Batuak osasun laguntza aitortu dienak eta osasun laguntza Euskadin jasotzen dutenak GSINek aseguraturata baleude bezala, eta Osasun Sistema Nazional guztian balio duen osasun txartela dute. Brexitaren ondoren pertsona horiek osasun laguntzako aseguru pribatu bat beharko lukete.

16 pertsona horiek, edo beste batzuk, osasun estaldura barik geratzen badira eta Euskadin bizitzen jarraitu nahi badute, aukera dute dagokion Lurraldeko Osasun Ordezkaritzarekin "Osasun laguntzako hitzarmen berezia" sinatzeko. Posibilitate hori uztailaren 26ko 576/2013 Errege Dekretuak arautzen du eta horren ondorioz pertsona batek osasun laguntza guztia jaso ahal izango du Euskadin eta Osasun Sistema Nazional osoan baldin autonomia erkidego batean urtebete baino gehiago bizi bada eta hileroko kuota ordaintzen badu, hau da, 157 euro/hil (65 urte baino gehiagokoa bada) eta 60 euro/hil (65 urte baino gutxiagokoa bada).

(*Berria) Gizarte Politika eta Enplegua

Oraindik goiz da eragina iragartzeko. Hala ere, a priori, 3 egoera gerta daitezke:

1. Posibilitate bat, EB utzi ondoren, Erresuma Batua Europako Esparru Ekonomikoari atxikitzea izango litzateke, gaur egun Norvegia, Islandia eta Liechtenstein kide dituenak. Kasu horretan, langileen zirkulazio askea mantenduko litzateke eta Erresuma Batuan lan egiten duten euskaldunak ez lukete lan baimenik beharko. Modu berean, lan Euskadin egiten duten Erresuma Batuko herritarrek ere ez lukete beharko baimenik.

Gizarte Segurantzaren babesari dagokionez, Gizarte Segurantzako Sistemak koordinatzeko 883/04 eta 987/09 Arautegiak aplikatzen jarraituko litzateke, eta praktikan horrek kotizatutako aldiak elkarri kontatzea dakar, bai eta Gizarte Segurantzaren prestazioak jaso ahal izateko bermea ere, orain gertatzen den bezala.

2. Bigarren egoera Erresuma Batuak EBrekin alde biko hitzarmena sinatzea izango litzateke, Suitzarenaren antzekoa. Kasu horretan, enplegu eta Gizarte Segurantzaren arloetan lehen egoerako ondorio berdinak izango genituzke.
3. Esku artean dagoen azken egoera posiblea Erresuma Batuak elkartzeko akordio bat negoziatzea da, Txileren kasua kasurako, edota merkataritza askekoa, Kolonbiak bezala). Hori gertatzen bada, baliteke langileen zirkulazio askea kanpoan geratzea eta, ondorioz, lan baimen bat edukitzea beharrezkoa izatea eta, gainera, britainiar zuzenbideak arautuko luke. Elkarrekikotasunez, Euskadin bizi diren britainiarrek baimen bera beharko lukete, gure lege esparruak arautua. Gainera, moduren bat bilatu beharko litzateke bizisaria jasotzeko eskubidea gal ez zedin, urte batzuetan beste herrialde batean kotizatu izateagatik.

Erresuma Batua herrialderik gogokoena izan da lan aukeren bila irteten den euskal emigratzaileentzat. Han dauzkaten lan baimenak eta laguntzak Batasuneko herritar izateagatik eta sinatutako akordioengatik izan dira. Brexitarekin, erraztasun horiek kolokan daude.

2. Ondorio ekonomikoak

Euskal Herria – Erresuma Batua merkataritza harremanak

Erresuma Batua euskal enpresen merkataritza bazkide nagusietako bat da. Esportazioen aldetik, lehenengo 5 postuetan egoten izan da azken hamar urteotan. 2016 urtea ixterakoan, britainiar merkatua gure 4. nazioarteko bezeroa da eta gure esportazioen % 6 hartzen du.

Garrantziko datu gisa, azpimarratu beharrezkoa da krisialdiko lehen urteetan esportazioek nabarmen egin zutela behera, bereziki 2009an, aurreko urtearekin alderatuta % 36 jaitsi baitziren. Hala ere, 2011tik aurrera, esportazioak krisialdiaren aurreko balioetara itzuli dira eta, orokorrean, egonkor mantendu dira. Hori bai, azken aldi honetan % 8,48ko jaitsiera izan dute.

Euskaditik Erresuma Baturako esportazioak (mila euro)

	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016(*)
Esportazioak	1.239.302	1.259.674	804.352	981.406	1.226.203	1.407.578	1.213.976	1.384.478	1.416.866	1.296.686
Gorabehera		% 1,64	-% 36,15	% 22,01	% 24,94	% 14,79	-% 13,75	% 14,04	% 2,33	-% 8,48

Iturria: EUSTAT, Euskal Estatistika Erakundea (www.eustat.es).

* Behin-behineko datuak

Inportazioei dagokienez, Erresuma Batuak 2016an 6. postua zeukan euskal enpresen nazioarteko hornitzaile gisa, eta gure kanpo erosketen % 5 baino apur bat gehiagoren jatorria zen.

Inportazioen gorabehera irregularragoa da, koadroan ikus daitekeenez. Beherakada handia izan zuten 2009 eta 2013 urteetan, eta gorakada handia 2014 eta 2015ean. Halaber, aurreko urtearekin alderatuta azken urte honetan izan duten beherakada handia nabarmenezkoa da (% 53 jaitsi dira); jaitsiera hori batez ere Erresuma Batutik egiten diren petrolio edo gas inportazioengatik gertatu da.

Erresuma Batutik datozen Euskadiren inportazioak(mila euro)

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Inportazioak (mila euro)	934.702	547.571	785.853	802.527	556.765	527.557	1.518.069	1.743.340	814.134
Gorabehera (%)	-% 19	-% 41	% 44	% 2	-% 31	-% 5	% 188	% 15	-% 53

Iturria: EUSTAT, Euskal Estatistika Erakundea (www.eustat.es). * Behin-behineko datuak

Esportazioen eta inportazioen taulak alderatuta, Erresuma Batuarekin dugun merkataritzako balantza, 2014 eta 2015 urteetan izan ezik, Euskadira positiboa dela ondoriozta dezakegu.

Erresuma Batuaren eta Euskadiren artean azken 4 urteetan gehien esportatu eta inportatu diren produktuei dagokienez, ondorengo taulek erakusten dituzte mugako partida handienak.

Euskaditik Erresuma Batura esportatu diren produktu nagusiak (mugako kapituluka)

ESPORTAZIOAK (mila euro)	2013		2014		2015		2016(*)	
	Balioa	%	Balioa	%	Balioa	%	Balioa	%
Guztira	1.213.976	% 100	1.384.478	% 100	1.416.866	% 100	1.296.685	% 100
87 Ibilgailu automobilak, lurreko gainerako ibilgailuak, euren osagaiak eta osagarriak	284.700	% 23	355.476	% 26	443.100	% 31	423.035	% 33
84 Galdarak, makineria eta aparatu mekanikoak eta euren osagaiak	173.817	% 14	210.854	% 15	206.567	% 15	196.027	% 15
Burdin eta altzairu 72 galdaketa	215.026	% 18	208.872	% 15	205.104	% 14	162.336	% 13

Iturria: EUSTAT, Euskal Estatistika Erakundea (www.eustat.es).

* Behin-behineko datuak

Erresuma Batutik Euskadira inportatu diren produktu nagusiak (mugako kapituluka)

INPORTAZIOAK (mila euro)	2013		2014		2015		2016	
	Balioa	%	Balioa	%	Balioa	%	Balioa	%
Guztira	527.557	% 100	1.518.069	% 100	1.743.340	% 100	814.134	% 100
27 Erregai mineralak	10.050	% 2	1.037.938	% 68	1.192.101	% 68	406.837	% 50
Burdin eta altzairu 72 galdaketa	215.656	% 41	185.048	% 12	217.302	% 12	109.456	% 13
84 Galdarak, makineria eta aparatu mekanikoak eta euren osagaiak	72.851	% 14	69.648	% 5	85.721	% 5	88.943	% 11

Iturria: EUSTAT, Euskal Estatistika Erakundea (www.eustat.es). * Behin-behineko datuak

Amaitzeko, azpimarratu egin behar da azken urte hauetan guztietan Erresuma Batuak garrantzi handiko lekua izan duela euskal esportazioen jomuga diren herrialdeen rankingean. Zehazki, herrialde hau 3. eta 5. postuen artean ibili da

azken 10 urteetan, Frantziaren eta Alemaniaren atzetik eta Ameriketako Estatu Batuekin eta Italiarekin txandakatur.

Euskaditik Erresuma Baturako esportazioen jomuga rankinga

Urtea	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Postua	4.a	5.a	4.a	5.a	5.a	5.a	4.a	3.a	3.a	3.a	4.a

Iturria: EUSTAT, Euskal Estatistika Erakundea (www.eustat.es).

Informazioa sektoreka

Automobilaren sektorea

Euskal esportazioetarako giltzarri den sektore bat da, Erresuma Batura egiten ditugun esportazio guztien % 33 jotzen baitu.

Erresuma Batuko automobil industriak herrialdearen ekonomian pisu handia du eta potentzial handienetakoa daukan sektore bat da. Ondoren datu interesgarri batzuk erakusten dira:

Adierazle nagusiak (2015)	Guztira
Negozio bolumena (bilioi libra)	71,6
Pertsona enpleguak	814.000
Zuzeneko enplegua hornidura katean	78.000
Zuzeneko enplegua manufakturan	169.000
Inbertsio garbia kapitalean (bilioi libra)	4
I+G inbertsioak (bilioi libra)	2,25
Automobil osagaien fabrikatzaileak	>2.000

Iturria: The Society of Motor Manufacturers and Traders (SMMT)

Europaren eremuan, 2015ean, Erresuma Batua laugarrena izan zen fabrikatutako ibilgailuen kopuruan.

Automobil-fabrikatzaile nagusiak Europan (2015)		
Rankinga	Herrialdea	Ibilgailu kop.
1	Alemania	6.033.164
2	Espania	2.733.201
3	Frantzia	1.970.000
4	Erresuma Batua	1.682.156

Iturria: The Society of Motor Manufacturers and Traders (SMMT)

2016an, fabrikatutako ibilgailuen kopuruak apur bat gora egin du, eta ia 1.800.000ra heldu da. Fabrikatzaile nagusiak azken urte honetan hauek izan dira:

Tresna originalaren fabrikatzaile nagusiak (OEM; 2016)	Ibilgailu kopurua
Tata	570.000
Renault/Nissan	520.000
BMW	200.000
GM	190.000
Toyota	160.000
Honda	120.000

Iturria: Automotive Intelligence Center, AIC.

Erresuma Batua ibilgailu osagaiz hornitzen duten herrialde nagusiak AEB, Japonia, Alemania eta Frantzia dira. Espainiako hornitzaile kopurua txikiagoa da, baina batzuk nabarmentzen dira, hots: Gestamp (West Midlands), Grupo Antolín (West Midlands), ACS (West Midlands) eta CML Innovative Technologies (East of England).


Energia sektorea

Erresuma Batua laugarren herrialdea da energia sektoreko euskal enpresen nazioarteko ordezkartzen kopuruan (AEB, Txina eta Brasilen ostean).

Energia sektoreko 14 euskal enpresak dute presentzia Erresuma Batuan, dela ekoizpenerako dela merkataritzarako egoitzak dituztela. Enpresa horiek merkataritza jarduera egiten dute eta/edo inbertsioak egiten dituzten britainiar merkatuan hainbat eremutan: energia eolikoan, sare elektrikoetan, biltegiatzean.

Beraz merkataritza truke handia dago sektore honetan. Harreman ekonomiko hauen argitan, ez da harritzekoa Erresuma Batua laugarren herrialdea izatea energia industriako euskal enpresetan zuzeneko presentzia handia dutenen artean. Presentzia hori merkataritzarako ordezkartitza, zerbitzuetarako ordezkartitza eta ekoizpen planta izan daiteke, eta 30 kokapen ditu.

Herrialdeen Top 10 rankinga ordezkartitzen arabera *(iturria: Energia klusterra)*



Lurraldean diharduten enpresei dagokienez, azpimarratu egin behar da Iberdrola euskal enpresa garrantzitsuena bilakatu zela Erresuma Batuan Scottish Power erosi ondoren (2007). Honen presentziak, gainera, tirakada egin zuen

beste euskal enpresa batzuen presentzia areagotzeko, sare elektrikoen eta sektore eolikoaren balio kateetan, gailena Gamesa.

Sektorekoak izanik presentzia duten beste enpresa batzuk eta Erresuma Batuan daudenak Cegasa, Ormazabal, Sener, Tamoin, Zigor edo Vicinay Cadenas dira.

Erresuma Batuak itsas energia eolikoaren alde egin izana sektoreko euskal enpresek duten garapen leiho interesgarri bat da. Izan ere, merkatu honek ematen dituen aukeren jakitun, Euskadi ko-liderra da Eskoziarekin batera "Vanguard Initiative" energia proiektu pilotuan; proiektuaren helburua itsasoko energia berriztagarrietarako eta itsas zabaleko aplikazio energetikoetarako integritate handiko osagaien fabrikazioan EB munduko liderra bihurtzea da.

Makina tresnaren sektorea

Erresuma Batua tamaina ertaineko merkatu bat da. Nolanahi ere, neurri horretan, efektua nahiko handia izaten ari dela nabaritzen ari da. Klusterrean elkartutako enpresetako batzuek jaitsiera gogorrak nabaritu dituzte euren salmentetan erreferendumaren emaitzen ondoren.

Makina tresnen Espainia-UK esportazio eta inportazioak azken 10 urteetan (milioi euro)

	Esportazioak	Inportazioak
2007	22,84	13,11
2008	20,55	9,46
2009	20,15	5,04
2010	14,17	4,84
2011	13,97	7,39
2012	20,32	7,36
2013	39,46	10,01
2014	40,72	13,31
2015	48,75	18,73
2016	24,31	17,03

Erresuma Batutik sartu diren eskaerak azken 5 urteetan (miloi euro)

	Guztira	Harroketa	Deformazioa
2012	23,01	21,22	1,79
2013	37,00	14,97	22,03
2014	4052	24,29	16,23
2015	14,37	7,78	6,59
2016	15,55	9,93	5,62

Sektoreko esportazioetarako azken 5 urteetako herrialdeen rankinga (milioi euro)

Postua	2012		2013		2014		2015		2016	
1.a	Txina	155,77	Alemania	152,61	Txina	154,49	AEB	97,05	Alemania	108,05
2.a	Alemania	97,82	Txina	114,73	Alemania	87,13	Alemania	80,07	Txina	96,63
3.a	Frantzia	54,94	Frantzia	66,21	AEB	54,46	Txina	51,34	Mexiko	77,81
4.a	India	45,71	Mexiko	48,81	Frantzia	42,47	Portugal	51,31	Portugal	72,31
5.a	Mexiko	42,94	Brasil	48,06	Portugal	41,21	Italia	51,07	Italia	68,57

6.a	Brasil	38,41	Errusia	39,83	Erresuma Batua	40,72	Erresuma Batua	48,75	AEB	65,48
7.a	AEB	38,34	Erresuma Batua	39,46	Mexiko	40,10	Mexiko	46,65	Frantzia	51,27
8.a	Portugal	31,72	AEB	38,89	Brasil	31,71	Frantzia	45,06	Polonia	34,30
9.a	Turkia	31,05	India	34,51	Italia	30,99	Polonia	35,27	Erresuma Batua	24,31
10.a	Errusia	24,86	Portugal	34,38	India	28,83	Brasil	33,08	Suedia	15,68
11.a	Italia	21,46	Italia	25,32	Errusia	26,75	Errusia	22,09	India	15,25
12.a	Erresuma Batua	20,32	Venezuela	21,38	Turkia	14,39	India	20,39	Errusia	14,24

Iturria: AFM, Advanced Manufacturing Technologies

Sektore aeroespaziala

Sektore aeroespazialak nahiko pisu txikia dauka Euskal Herriak Erresuma Batua egiten dituen esportazioetan (% 1 inguru da). Hala ere, Euskadik sektore aeroespazialean egiten dituen esportazioetan Erresuma Batuak leku nagusia daukala argi utzi behar da. Hala erakusten dute Hegan klusterrak emandako datuek.

Hegan klusterraren esportazioen jomuguen rankinga

Esportazioak guztira (mila €)		1.226.000
Rankinga	Herrialdeak	Ehunekoak
1	Alemania	% 24,50
2	Erresuma Batua	% 23,80
3	AEB	% 16,10
4	Frantzia	% 9,00
5	Beste herrialdeak	% 26,60

Iturria: Hegan klusterra

Erresuma Batuak bazkideen esportazioen ia % 24 dauka, eta 2. dago herrialdeen rankingean Alemaniaren ondoren, 291 milioi euro baino gehiagoko balioarekin.

Ondoren informazio xehea ematen da Hegan klusterrak Erresuma Batua egiten dituen esportazioez.

Hegan klusterraren Erresuma Baturako esportazioak

Elkartua	Esp. E. Batura (mila €)	Azpisektorea	Produktua/Zerbitzua	Bezeroa(k)	Zentroak E. Batuan
Tier 1 I	23.039	Aeroegiturak	Ingeniaritza	General Electric Aviation	
			Tresneria	Zenbait	
Tier 1 II	229.414	Motorrak	Azpimultzo handiak eta osagaiak	Rolls-Royce	5
				Pratt & Whitney	
Tier 1 III	4.854	Aeroegiturak	Azpimultzoak	Airbus (UK)	
	11.089	Sistemak	Azpimultzoak	DBD / MBDA	

	9.944	Espazioa	Azpimultzoak	Airbus DS (UK)	
Tier 1 IV	1.596	Motorrak	Osagaiak	SL Engineering	
ETE I	1.828	Sistemak	Mantentze lanak		
Tier 1 V	2.863	Aeroegiturak	Azpimultzoak	puntuala / ez errepikatua	
ETE II	1.735	Aeroegiturak	Konpositezko tresneria	Bombardier	
MT fabr.	4.135	Motorrak	Makina merkataritza	Rolls-Royce	1
ETE III	2	Aeroegiturak	Tratamendu termikoak		
ETE IV	726	Sistemak	Osagaiak	Martin-Baker	
CT I	72 Sistemak		Finantza aurreratuak	UTC	
	25 Espazioa		Publizitate aurreratuak		
GUZTIRA	291.322				6

Azpisektore guztiak badaude ere, Motorrena da mugimendu gehien daukana eta salmenta horien % 80 hartzen du, 235 milioi € guztira. Erresuma Batuan 6 euskal kokaleku daude (horietako 5 handietako batenak). Bezerorik garrantzitsuenak Pratt & Whitney (UTC), Rolls-Royce, Airbus Group (UK) eta General Electric dira.


*(*Berria) Arrantza sektorea*

Uretarako sarbidea, merkaturako sarbidea

Beheragoko koadroan uharteak inguratzen dituzten itsasoetako britainiar urak ageri dira, herrialde askotako ontzidiak arrantzan egiten dute bertan (eta Euskadikoek ere bai), baina orain arte Erresuma Batuarekin baliabideak banatuz egin dute "elkarrentzako onura" zekarren egoera baten barruan, izan ere gainerako Europak, trukean, Erresuma Batuko arrantzaleek harrapatutako produktuei bere merkatua "eskaintzen" baitzien.

Mapan gorri ikusten dugu britainiarra den eremua (200 milia), EBko beste estatu batzuen uretatik (urdin) edo EBko kide ez diren beste estatu batzuetatik (berde) bereizteko lerroek mugatuta.

Logikoa denez, britainiarrak ez diren ontzidiak kanporatzeko "mehatxua" bete egiten bada, britainiar arrantzako produktuak "merkatuan sarbidea" izateko klausula berraztertu egin beharko litzateke.



Arrantza kuotak autoesleitzea

Beste arrisku bat Erresuma Batuak, EBtik kanpora dagoenean, bere uretako arrantza kuotak "autoesleitzeko" arriskua izatea (berdelarekin, adibidez, Islandiak eta Faroe uharteek egiten duten bezala). Horrek inplikazioak edukiko lituzke EBren barruko banaketan (kuota osoa handitzerik ez badago), eta eragina izango luke merkatuan, produktu gehiago egongo bailitzateke Erresuma Batuak egingo lukeen arrantza kuotaren autoesleipen horregatik, logikaz handiagoak izango litzatekeelako.

Konkretuki eta euskal ontzidiari dagokionez, arazo bikoitz honen eraginak ondorio hauek izango lituzke:

- Itsasbazterreko arrantzari dagokionez, uretarako sarbideak ez luke gehiegizko eraginik izango, ontzi hauek noizbehinka baino ez dutelako ur horietan arrantzan egiten (hegaluzearen arrantza-garaian). Batez ere Irlandaren hegoaldean egiten dute, eta arrain deskarga batzuk egiteko estatu kide honen portuak erabiltzen dituzte, gainera. Baina kuota autoesleipena batez ere berdel arrantzan egiten bada ("eskoziar" arrantzaleek bereziki nahi duten helburua), euskal arrantzaleei kalte handia eragingo die, baina, oraingoz, zenbatesten zaila. Itsasbazterreko arrantzan harrapatzen diren gainerako espezieei dagokienez, eragina oso txikia izango litzateke, Erresuma Batuak ez daukalako antxo, txixarroa, hegaluzea edo hegalaburra harrapatzeko ontzirik.
- Itsas zabaleko arrantza ontziei dagokienez, ia dena Ondarroako portuan, kasu honetan eragina kontrakoa izango litzateke. Uretarako sarbidearen kasuan, Ondarroako ontziek (guztiek) "arrantza eskubidea" esaten zaiona edo arrantza kuota dute IENBren VI. gunean, hain zuzen Eskoziaren jurisdikzioko uretan (Erresuma Batua). Egia bada ere gaur egun

Ondarroako 2 ontzik bakarrik egiten dutela arrantzan han eta 3 hilabetez soilik, euren arrantza kuotaz baliatuz (batez ere legatza, zapoa eta itsas oilarra), Ondarroako gainerako itsasontziek (11) ur horietan esleitu zaizkien kuotak beste ur batzuetan eskubideak dituzten Espainiako Estatuko beste itsasontzi batzuekin eskubideak trukatzeko erabiltzen dituzte (esate baterako Frantziako uretarako...). Hortaz, Brexit gogor batek ekarriko lukeena da gaur egun ur horietan arrantzan egiten duten itsasontziek (batez ere Galiziarrek, eta aipatutako Ondarroako biek) gune horretako arrantza kuota gabe geratuko lirakeela, eta, jakina, beste aukera batzuk bilatu beharko lituzkete. Eta azken horrek arrantzarako ahalegina beste gune batzuetan kontzentratzera eramango luke (Irlandako edo Frantziako uretan), eta horrek tradizioz ur horietan arrantzan egiten duen ontzidiari zuzenean eragingo lioke (batez ere Ondarroako euskal itsasontziei). Aitzitik, ostera, ez dirudi Erresuma Batuko ontzidiak interes berezia duenik Ondarroako ontzidiaren xede diren espezieen kuotak autoesleitzeko (legatza, zapoa eta oilarra), espezie horiek harrapatzen dituen ontzidia oso urria delako Erresuma Batuan eta gehiena europar kapitaleko ontzidia da (galiziarra, batez ere).


Arazoa, funtsean, estatuko gainerako ontzidien arazo bera da (batez ere, galiziarrena), baina agian apur bat txikiagoa, itsasbazterreko arrantzak eta harrapatzen dituen espezieek duten pisua handia delako Galiziako ontzidirako duenarekin alderatuta.

(*Berria) Euskadiren eta Erresuma Batuaren arteko itsas joan-etorriei buruzko datuak

2016an, Estatuaren eta Erresuma Batuaren arteko salgai trukea gutxi gorabehera 18,4 milioi tonakoa izan zen. Bilboko portuak guztiaren % 18 mugitu zuen, itsas joan-etorrien % 28.

Euskadiren eta Erresuma Batuaren arteko itsas joan-etorriek % 10 egin dute behera azken 3 urteetan, petrolio gaien beheraldiak eraginda batez ere.

Petrolio gaiak, burdin eta altzairu galdaketa eta gatza eta sufrea dira ekoizkinen top 3



2016an Bilboko portuaren eta Erresuma Batuaren artean egon zen joan-etorria 3.224.365 tonakoa izan zen. Erresuma Batuarekiko merkataritzaren % 82 itsas garraioaren bitartez egiten da. 2012-2016 aldian % 11ko hazkuntza egon zen solteko petrolio salgai likidoaren inportazioko joan-etorriagatik.

TOP 15 - Productos	Toneladas 2015	Toneladas 2016	% Peso sobre tráfico 2016
Petróleo crudo	1.568.732	829.948	26%
Vinos, Bebida, Alcoholes y Derivados	401.343	358.283	11%
Cemento y Clinker	204.322	305.265	9%
Productos Químicos	246.809	223.512	7%
Materiales de construcción	179.308	191.758	6%
Productos Siderúrgicos	230.707	165.348	5%
Chatarras de hierro	265.380	156.565	5%
Otros productos de alimentación	85.844	106.120	3%
Conservas	96.980	106.001	3%
Automóviles y sus piezas	81.649	99.731	3%
Aparatos, Herramientas y Repuestos	63.588	95.917	3%
Frutas, Hortalizas y Legumbres	99.978	91.471	3%
Papel y pasta	88.088	89.311	3%
Gasoil	-	69.102	2%
Cereales y su harina	45.785	54.340	2%
Subtotal Top 15	3.658.513	2.942.672	
Total	4.033.278	3.224.635	89%

Erresuma Batuekiko joan-etorriak Bilboko Portuaren joan-etorri guztien % 12 dira. Liverpool, Hound Point eta Tilbury dira zama trukerako portu nagusiak. Hiru portu horiek Erresuma Batuekiko trafiko guztiaren % 47 biltzen dute.

Erresuma Batuko merkatuari buruzko zifra batzuk

Principales cifras mercado Reino Unido (2016)

Posición mercado para carga Puerto Bilbao	<ul style="list-style-type: none"> • 1º para Contenedor. 28% del tráfico total • 4º para Granel Líquido. 5% del tráfico total • 2º para Granel Sólido. 12% del tráfico total • 1º para Convencional. 21% del tráfico total
Escalas	<ul style="list-style-type: none"> • 1.320 escalas. 47% de las escalas totales
Pasajeros	<ul style="list-style-type: none"> • 104.028 en Ferry entre Bilbao y Portsmouth
Crucelistas	<ul style="list-style-type: none"> • 43.299 crucelistas. 58% del total

Erresuma Batuak Europarekin duen itsas joan-etorriek behera egitea espero da (batez ere gupil bidez kargatzeko ontziak edo ro-ro ontziak), tasa eta aduana barrera berriak sortuko direlako. Bestalde, Erresuma Batuak negozio aukera berriak bistaritzen ditu, aduana zergarik gabeko eremuak ezartzea, esaterako.

Zertzelada bat oraingo egoeraz eta etorkizuneko ikuspegiaz:

- Erresuma Batuaren nazioarteko merkataritzaren % 95 itsasoz egiten da (420.000 enplegu sortzen ditu).
- Ontzi konpainiak arduratuta daude tasa edo tarifa berriak ezarriko ote diren, itsas joan-etorriei negatiboki eragingo baitiete, murriztuz.
- Ez da espero IMO Nazioarteko Itsas Erakundearen araudian berehalako eraginik, baina bai nazioarteko segurtasun eta babes hitzarmenak birzehazteko beharra.
- Europarekiko joan-etorriek behera egitea espero da: batez ere ro-ro sisteman, joan-etorrien % 78 Europarekin izaki, eta eragin txikiagoa lo-lo sisteman (zama jasoz ontziratzea), joan-etorrien % 31 Europarekin.
- Merkataritza akordio berriak aurreikusten dira Asiarekin (India), Hegoamerikarekin, AEBrekin eta Kanadarekin.
- Gaur egun, Europan, aduana zergarik gabeko eremuak ezartzea araugintza eta betekizun ekonomiko konplexuen mendean dago.
- Hala ere, Erresuma Batuak eremu gehiago ezartzea aurreikusten du betekizun gutxiagorekin (AEBren antzera) eta enpresa produktibo gehiago, lanpostua inbertsioetan erakartzea.

Azkenik, esan beharra dago librak balioa galtzeak potentzial negatiboa izan dezakeela esportazioetan baina positiboa Erresuma Batutik egiten diren inportazioetan. Erresuma Batuaren ekoizpena hazi egiten bada, inportazioen joan-etorria hazi ahal izango da.